

hasi eta gero gaiak berak NORI-dun hutsezkoetara eraman banau ere.

Nere azterpen xume honi inñolako ondoriorik badario, nik hau aterako nuke: Hiztegian bezelaxe, hemen ere hiru bultzagarri ditugula hizkuntzaren aldatzaille: Bere barne-joera, hauzokoen eragiña eta, hirugarrena, aldiak berak giza pentsakerari hizkuntza guztien gaindik (edo azpitik, ez dakit) dakarkion giro-aldakuntza.

Indar hoik askotan alde bereruntz ez jotzea ez da karritzeko, halabeharrezko baizik. Egungo nere hontan hor duzute, lekuko eta adibide, aditz-flesio-zatien flesio barruango eta esakune osoango eskuhartzemoduen arteko nolabaiteko bat ez etortze hori.

Txosten hontan egin dudana hutsaren urrengoa duzute: Esakune-mota bakar baten azterketarako lehenbizi-lehenbiziko urratsa baiño ez. Hor daude, azterkizun, zati bakoitzak eskatzen dituen birzatatitze eta sakontze-lanak, eta nik aipatu ere egin ez ditudan beste zenbait eta zenbait esakune-motei buruzkoak.

Hoik dadukaten garrantziazkoan Mitxelena jaunarekin erabat bat nator. Gure gramatikalariek ba dute hor, erdal-gramatikak hitzez-hitz euskeraz jartzen jardun orde lan sakon bati nundik ekin.

GORPUTZ AURTIKINAK

P. Larzabal

Gizonaren gorputza da lantegi bat. "Aurtikinak" deitzen ditugu, lantegi horrek kanporat aurtikitzen dituan zikinak. Hauk izan ditazke ixurkiak ala gogorkiak, usaindun ala usain-gabeak, otsarekin ala ixilik kanporatuak. Aurtikigailu batzu, gorputzak ditu berezkoak, bertze batsu, aldiz, eritasunatik datorzkionak.

Aipa ditzagun horietarik zonbeit, beren errankizun eta ikusmen bereziekin.

GORPUTZAREN BEREZKO AURTIKINAK

Aurtikin horiek ateratzen dira edo larru azalatik edo idekidura berezietatik.

Gizona, gorputzaz baita egina asko aberen idurirat, ez da harritzeko, maiz, bereziki gure baserritan, gauza berak, hitz berez erraiten balinbadira, ba gizoneri eta bai abereri dohakotenentzat.

Azazkal-izerdi-ile

Azazkala (edo *behatza*) da gizonarentzat, nola baita atzaparra aberentzat. Ez da beraz harritzeko gizonentzat erraten badugu:

Atzapar handiko gizona,
Atzapar gaxtokoa, eta abar...

Azazkal zikinentzat erraiten dugu:

Azazkalak dolutan.

Izerdia.—Izerdia da azaleko bustidura (Gizona izerdi; paretak izerdi) edo landareen odola (Arbolen izerdia). Euskaldunak errespetu dio gizon izerdiari, maizenik baita bizi-nekearen ondorioa. Izertzen ez den gizona, ez da alfer bat baizik... Heientzat erraiten da trufaz, "lanean ari direla horztzak izerdi".

Karrika garbitzalek ez baitzuten fama onik, ziotenaz, "heien izerdia zen munduko edarrietan karioena".

Ile, bizar.—Euskaldunetan, bertze jendetzetan bezala, badira mota guzitako iletarik.

Gure erran zahar batek dio bizarra pusarazteko molderik hoberena dela larrua oilo kakaz gantzutzea. Nik ez dakit zitaken emazteen errespetuz edo beren burua gutiago erakusten zutelakotz, bainan heien biloeria gutiago aipatua da gizonena baino. Bereziki, biloen gatik eman izen goitiak, dira gehienak gizonen jarriak. Hala nola: kasko zuri; kasko pele; buru gorri; bekain beltz.

Beharri-begitatiek

— Beharri ziloko lizkari, erraiten diogu "beharriko aza" bainan trufa aire batekin, adiaraziz bezala, lizka hori on litakela aza landatzeko.

— Usu dioguna da: “Norbeit ez dugula ikusi nahi gure begiko zikina baino gehiago”.

Bi zikin mota izan ditazke gure begian. Bat, kanpotik sartzan zaukuna (uli, errauts eta holako). Bertzea, barnetik ateratzen zaukun lizka. Hau deitzen dugu begi-kaka.

— Bertzalde, begitatik jalitzen da nigarra. Euskaldunak, arrazaz baitu halako orotstasun bat, nigarrak zaizko ahuleziako aurtikin batzu. Ez ditu aise onhartzen bereziki gizon baten ganik.

Hortakotz erraiten da haurreri: “Egin, egin nigar, pixa gutiago eginen duzu!”.

Nigar egin baititake hainitz moldez, hainitz ere ditugu horien deitzeko ots-izenak: nigarrez marrumaka, karrasiaka, hipaka, intzirinka, sintsaka, eta abar...

Aho-sudurratik

Sudurratik dator mukia. Euskaldunen ganik mukiak hartze ditu bi ikusmen gaxto: batetik da *zikina* (Haur mukitsu zikina!); bertzetik, da *guria* (Gizon mukia!).

Aserre-gorrituz geroz, sudurra xistuka lotzen... Hala diogu Euskaldunek (Zer sudur xixtuak!). Nun “xistu” horiek ez diren sudur mizpirak, dal-dal erabilki!

Ahotik, hainitz aurtikin jalitzen dira:

Tua (edo xistua). Tuak asko moldagintza baditu: tua, kaurina, ahuna, tu lodia, aho gozoa, eta abar... Zonbat izen eta hainbertze erabil-molde:

Gizon horrek ez du tu bat balio.

Hor dago, pastizari so, kaurina darioan.

Errabian dago, ahuna dariola.

Bularrak hartuak ditu: tu lodia du.

Aho gozoz orratzen da janari idorra.

Aurtik ditazke: tu zafla bat,

tu zirrizta bat,

tu ziliportak, eta abar...

Eztul. Euskaldunak, beharrez eztula entzuten du, jakintzaz sakontzen duen baino gehiago. Hortarik eztul zonbeiten izenak:

Eztul karranka, eztul kalaxka, zakur eztula, eta abar...

Norbeit ari delarik eztulka, janaria kontra-zintzurrerat joanik, bizkarra jotzen zaio.

Eztulkariari, trufaz edo izen goitiz, erran ditake: Hi, extul!

Poker, xotina, urtzintz

Izaitez hala delakotz edo hitz-otsaz ongi datorrelakotz, maiz erraiten dena da: Poker eta puzker!

Poker egileari, erraiten dena ere da: On dakizula! Erantzuna: Milesker!

Xotina duenari, ur hotza eskaintzen zaio.

Urtzintza aurtikitzaleari, erraiten zaio:

Dominix tekun! (Dominus tecum?) - Erantzuna: Milesker.

Ziztu. Hainitz ziztu mota badira. Gure artzainetan bereziki aurkitzen dira ziztulari onak, usuenik bi erri ahoan sartuz. Berant jaterat heldu den bonbidatuari, jada jar-leku guziak hartuak direlarik, erraiten zaio: Aski duk (dun) egitea mahain azpitik ziztu!

Hatsa. Eztula bezala, hatsa ere, beharrez sumatzen dugu, gogo-jakintzaz baino gehiago. Hori ageri da hatsa moten izendatetik:

Hats zurrunga, hats laburra, hats luzea, hats-ufaka, eta abar...

Esnea. Nahiz ez den aurtikin zikin bat, esnea ere aipatuko dugu.

Horitza deritzogu, haur sortu-berrian, amak dakarren lehen egunetako esnari. *Eraintza* (eragintza) oneko bularra da emantza oneko bularra. Eraintza ona eman dezan, bularra behar da aintzinetik goxatu, laztandu, berotu. Horren eskasian, bularrak esnea "gorde" dezake, gogor eta kozkortsu dagola, ausesen irriskuan.

"Horitza", "eraintza" hitz horiek berak erabiltzen dira kabalen esnearentzat ere, molde berez artatzen diren bezala batzuen errapeak eta bertzeen bularrak.

Gure errankizunetan, maizenik garbiki eta errespetuki aipatuak dira bularra eta esnea, hola zor zaiotelakotz eta ere amatasunari, gure artean, emana zaion ospea gatik.

Kaka. Aurtikin hunek, itxura bezenbat izen badauzka euskaraz: Kaka mokorra, ziztorra, mehea, zuria, beltza, kakeria, kaka pikorrak, etab...

Hitz hau da beti zerbeit zikin, itsusi-ren tapagailu:

Kaka gixon! Haur kakatsua! Gizon kakerrea! Kaka untzia!

Kaka zaharra! Kakagurea emaiten daut. Hail kaka egiterat!

Ez hunat jin kaka saltsatzerat! Eta abar...

Putza, puzkerra

Lehenak du usaina gehiago. Bigarrenak arrabotsa. Euskalduna beharrikoiago baita sudurkoi baino, hainitz hitz baditu arrabotsa izendatzeko... Gutxi aldiz, usaina nolakoa den salatzen. Adibidez:

Puzker otsak: Purrut, turrut, tirrit, tarrat, terterter, burrunb, barranb.

“Puntza” hitzarekin badira asko errankizun:

Putza bezain arina; putzak hurbil kaka; gizon asto-putza, putz-hantua, putz-untzia, putz-usaindua; eta abar...

Ikusten den bezala, Euskaldunak deus on guti du igurikatzen gizonaren gibelaldetik.

Pixa. Euskaldunek pixari ekartzen diote, pixka bat bederen, kakari ordaintzen ez dioten ospea. Oraino ere badira Euskaldunak, beren pixa baliatzen dutenak karramintxa zombaiten artatzeko eta berdin... edateko.

Bertzalde, aberentzat “pixa” erraiten bada, jendentzat usuago erraiten da: gernua edo ur-xuria. Bere errespetuz ote, ala datorren iturriaren errespetuz? Gutarteko jendetasunari so eginez, ez da onhartua emaztentzat beren ur-xuria ixur dezaten, gizonek hortakotzat duten aisetasun berarekin.

Euskalduna dela begikoi eta beharrikoi, seinale da ere, pixa egiteari buruz, baliatzen dituen hitzetarik:

Banoa ttirritta bat ixurtzerat.

Zakurrak egiten du pixa xirrixtaka, behiak zurrutzan, andere serorak... ixil-ixila!

Setsualak. Gizon ala emazten setsual aurtikinenzat, erraiten dugu:

Azi ixurtzea; xuringo, lingurdi ixurtzea;

Odol, ur galtzeak; ondokoak egitea; haur galtzea; (umea) hilortzea.

Emazteen hilabetekoentzat, erraiten ohi direnak:

Nor nahiek: Bere hilabetekoak ditu.

Lore minak ditu.

Bere aldaketak ditu. Eta abar...

Emaztek berentzat:

Amerikano (edo Anglesen) bisita dut.

Ez dut ezin sendatuzko mina.

Bere tenoreko nekadura dut. Eta abar...

Gizonek beren artean:

Begi handiekin duk.

Hil gorriekin ziok.

Xatar gorriekin duk. Eta abar...

* * *

Aipa ditzagun orai, eritasunetarik sort ditazken aurtikinak: bixika, frintza, zorne, handitsu, auses, zauri materia edo usudun guziak.

Horiek gorputzatik kentzeko, gaurko Euskaldunek hiru iturritarat jotzen dute: mihikua, sasi-mihikua, sineskeria.

Ez da neri erraitea zointarat joaitea den hoberenik. Pentsatzen dutana da sofritzen duenak, berak, nehork baino hobeki, dakiela nork edo zerk arintzen dion gehienik bere mina... Jo dezala beraz, bere iduriz, sendagilea hoberena denaren ganat.

Horiek hola, hainitz Euskaldunek, gure eskualdean segurik, gorputzeko arrangura zonbeiten iturburua eta beraz artamendua ez dituztela ezagutzen gaurko jakintsunek. Adibidez:

Aize hegoak, jende batzu harrotzen eta burtxoratzen ditu. Ez da harritzeko. Har bat omen dugu zonbeitek buru fuinetan, eta har hura mugitzen omen da aize hegoaren berotasunarekin... Eta holakorik ez onhartu nahi gure sendagilek!

Halaber, hilargi kanbioak iratzartzen ditu nolazpeit gure tripako harrak eta hortarik heldu dira gorputzetik kanporat aurtikitzen ditugun zizariak. Holakorik, gure mihikuek, ez omen dute entzun nahi ere.

Gizon batzuek omen dituzte eritasun berezi batzuen sendatzeko dohainak. Hala nola basandrea sendatzekoa. Hortakotz behar da izan familiako zazpigarren edo hamairugarren haurra. Gizon horrek har dezala bizkarrean basandrea duen presuna eta joan dezala hiru bidegurutzetarat... Hori aski omen da presuna hori sendatzeko... Arras berrikitan, holako egintza bat izan da nere etxetik hurbil.

Geltorra begian balinbaduzu, hori heldu zautzu gezurra erraitetik.

Kalitzak larrutik kentzeko badira otoitz eta simagre bereziak.

Ez du aspaldi, amek ez ziotela haur ttipieri buruko Krisma kentzen, beldurrez hortarik burua zauri dakioten. (Krisma da buruko lertzo hori idor bat.) Egia erran, burua haurreri zauritzen zitzaieten, amek krisma torraka kentzen ziotelakotz. Goroztik ikusi dute krisma hori olio eta bazelinaz guritzen eta gero, ondotik, ur epelaz garbitzen.

* * *

Goazen helburuetarat:

Jada idatzi ditudan irakurgai batzuen bidez, erakusterat eman dut nola Euskaldunek beharri bereziak ditugun arrabotsen entzuteko... Begi bereziak koloren ikusteko... Izpiritu berezia, abere, landare, aroa eta gizon-gorputzaren ikertzeko... Lantto huntaz ohart ditake gure nortasuna badugula ere gorputz aurtikinen aipatzeko eta artatzeko.

Ikertze guzitarik ageri dena da Euskalduna dela *gorputz-koia*. Aberats gorputz sentimen-hunkimen eta gostugintzaz, bainan oroz gaineratik: *entzun* eta *ikusmenez*. Beraz ohiko bortz sentsueuetan hoberenak ditugu: begia eta beharria. Ez ote dira bi sentsu horiek premiatsuenak bizi BEHARRARI buruz?

Bertzalde, aintzineko ikertze batzuetan bezala, huntan ere ageri da nola Euskaldunak errespetatzen eta ohoratzen duen emaztea, bere eme eta amatasunean.

Estrabon idazlariak, Jesus sortu aintzineko mendean zion, harritzeko zela nola Kantabrian, emazteak ziren etxeko buruzagi eta familiari deitura emaille... Orduko erranek badukete zer bait oiartzun gaurko gure bizi-moldean ere.

IRAKASKINTZA LIBURUETAKO EUSKERAREN DESBERDINTASUNAK

X. Mendiguren

Azken aldi honetan euskarazko liburuak-haurrentzakoak batipat— eurrez argitaratzen dira, eta berauetan erabiltzen den euskara batuari bagagozkio, aurrerapen nabari bat egin dela bistakoa da. Hala ere, talde desberdinek argitaraturiko liburuen konparaketa bat eginez gero desberdintasun ugari aurkitzen dugu. Desberdintasun hauk, ia guztiok, akordiorik eza eta zabarkeriaren ondorioz eginak direlakoan nago, honetarako funtsezko arrazoirik ez baitut ikusten kasu gehienetan.

Egoera hau bi arrazoik larriago egiten dute: aipatu desberdintasun hauk agertzen direnoko liburu gehienek, nola-hala Euskaltzaindiaren eritzia, orraztapena edo gainbegiratuarekin argitaratuak ditugu eta honetarako zer erizpidez baliatu den ez da bat ere argi ikusten.

Bestalde, liburuok haurren eskuetan ipintzeko eginak dira eta anarkia hau konpontzea ezin izkoa ez delarik, alferrikako nekeak elkargainkatzea besterik ez dugu egiten, honez aparte nahiko lanekin euskara ikasten ari den haurraren gan.

Egoera hau lehenbailehen buka dadin proposamen batzuk egitera ausartzen naiz:

a) Euskaltzaindiak pertsona nahiz talderen bat izentatu beharko luke azken aldiotako liburu guztiak aztertzeko, haurrentzakoak eta irakaskuntzakoak batipat eta hauetan agertzen diren desberdintasun zerrenda bat eratu beharko luke.

b) Desberdintasun guztiok aztertu ondoren forma egokiak proposatu eta gomendatu beharko lituzke eta liburugin-tzan ari diren talde desberdinen eskuetan ipini beharko lituzke.